Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Julen Iñurrieta Goikoetxea

Soraluze, Gipuzkoa
(1925-2011)



Aurkibidea

Biografia



Gurasoak soraluzetarrak ziren. Kalebarreneko 12. zenbakian jaio zen. Zortzi anai-arreba izan ziren. Etxeko eskopeta-kanoi lantegian egin zuen lan 50 urte izan zituen arte. Gero emaztearen etxeko dendan, “Droguería Marcial Churruca”, jardun zuen jubilatu arte. Arantza Txurruka emaztea zenarekin, hiru seme-alaba izan zituen.

Zintak

SOR-067

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-08
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

SOR-068

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-08
- **Iraupena**: 9 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

SOR-093

- **Proiektua**: Soraluze 1936
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga Orbea, Maite - Trebiño, Bittor
- **Data**: 2010-06-12
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Soraluze 1936

SOR-094

- **Proiektua**: Soraluze 1936
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga Orbea, Maite - Trebiño, Bittor
- **Data**: 2009-12-29
- **Iraupena**: 10 min

- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Soraluze 1936

Pasarteak

1. Eskolaurretik maristetaraino

- **Erref**: SOR-067/003
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:01:04. **Bukatu**: 00:04:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Lautik sei urte arte eskolaurrean ibili zen Modesta zaintzaile soraluzetarrarekin. Urtebete eskola nazionaletan ikasi eta gero, maristen eskolara joan zen 14 urte bete zituen arte. Maristetan hasi zenean ikasi zituen lehen erdal berbak. Ikasle kopuruari aurre egin ezinda, 16 urtetik 14 urtera jaitsi zuten eskola bukatzeko adina maristek.

2. Eguneroko otoitzak maristetan

- **Erref**: SOR-067/004
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:04:01. **Bukatu**: 00:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Victor Andrés muxikarra eta Antonio Agustin burgostarra izan zituen irakasle maristak. Izen horrek erlijio-izenak omen ziren, ez benetako izenak. Eskolan gaztelaniaz egiten zuten arren, eskolatik kanpo muxikar maisua euskaraz mintzatzen zen eurekin. Goizean, Ave María eta bazkalostean arrosario osoa errezatzen zuten eskola hasi aurretik.

3. Eskolako jolas-orduak

- **Erref**: SOR-067/005
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:07:18. **Bukatu**: 00:09:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Eskolako patio txikian jolasten zuten pilotan eta futbolean. Jolas-ordua bukatzen zenean, denak formatuta itzultzen ziren eskolara. “Jueguan” ere jolasten zuten.

4. Gozo eta kandelagile

- **Erref**: SOR-067/006
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:13:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
1934. urtean krisi gogorra omen zegoen, eta eskolak bukatu eta Zumarragako senide batengana joan zen, gozogintzan ikastera. Txokolate, pastel eta baita kandelak ere egiten zituzten bertan. Argizaioletan biltzen zuten kandela, elizan jartzeko. Gerra hasi aurretxoan itzuli zen etxera Zumarragatik.

5. Aita espetxeratu zuten gerra hasieran

- **Erref**: SOR-067/007
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:13:02. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Udalerako errolda jasotzen jardun zuen etxerik etxe beste hiru lagunekin. Gerra hasi zenean ama haurdun zegoen; eta aita, garaian EAJko zinegotzia, etxean geratu zen. Tropak Soraluzen sartu zirenean, irailaren 22an, aita atxilotu zuten. Lau urte eman zituen espetxean; Soraluze, Tolosa, Donostia, Iruñea, Isla de San Simón eta Upomendi itsasontziko kartzelak ezagutu zituen.

6. Trubian egin zuen soldadutza

- **Erref**: SOR-067/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Iruñeko Fuerte de San Cristobal espetxetiko ihesaldian ez zuen parte hartu, adinagatik. Upomendi itsasontzitik Zamorako Astorgako kartzelara eraman zuten. Nikanor Asturiasen soldadu zegoen, eta aita bisitatzera joan zen Astorgara. Asturiasko Trubiako arma-lantegian egin zuen lan Nikanorrek, tornularia zela esan zuelako. Honela, frontera joatetik libratu zen.

7. Aitari bisita Astorgako kartzelan

- **Erref**: SOR-067/009
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:22:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Aitari Astorgako kartzelan egin zion bisita kontatzen du. Erdaraz berba egin behar, eta ezin zuen asmatu aitari erdaraz hitz egiten. Elkar besarkatzeko aukera izan zuten. 41 urte zituen aitak. La Quinta del Biberónekoekin batera joan zen Nikanor soldadutzara, 18 urte bete berri zituela. Kinta horretako baserritarrek bereziki sufritu omen zuten.

8. Asturiastik Burgosera entxufez

- **Erref**: SOR-067/010
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:22:16. **Bukatu**: 00:25:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Trubiako lantegian soldata ordaintzen zieten soldaduei. Noizbehinka aitari dirua bidaltzen zion Astorgara. 13 pezeta eta erdi irabazten zituen egunean. Gerra bukatu zenean, kuartelera bidali zuten. Han bulegari lanetan jardun zuen. Handik Burgosko militarren osasuneko anbulantzia-sailera joan zen. Guardia gutxi eginda pasatu zuen soldadutza.

9. Hiru hilabeteko baimenak

- **Erref**: SOR-067/011
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:25:57. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutzako zatirik arinena Asturiaskoa iruditu zitzaion, dirua irabazten zuelako. Zortzi anai-arreba ziren, bera bigarrena. Sei urtez egon zen soldadutzan. Bizpahiru aldiz, hiru hilabeteko baimenarekin etorri zen etxera.

10. Kanoigintzaren artisautza

- **Erref**: SOR-067/012
- **Iraupena**: 0:04:34. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:32:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Soldadutzatik itzuli zenean, etxeko eskopeta-kanoi tailerrean hasi zen lanean. “Agirregomezcorta y Cía.” lehenengo eta “Industrias Iñurrieta” gero izan ziren tailerraren izenak. Anaia biak kanoigintzaren prozesua azaltzen dute. Eskulan asko hartzen zuen kanoigintzak.

11. Eskopeta-kanoigintza

- **Erref**: SOR-067/013
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:32:24. **Bukatu**: 00:34:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Eurak kanoi solteak lantzen zituzten, eta halaxe saldu. Gero Eibarren, lotzaileak, kanoiok binan soldatzen zituzten. Tailer bakoitzak bere espezialitateko pieza lantzen zuen, gero beste batzuk eskopetaren muntaia egin zezaten. Garai batean egon ziren Soraluzen beste eskopeta-kanoigile batzuk, (Arana edo errotako Galarraga, besteak beste), baina azkenerako Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren.

12. Eskopetagile eta saltzaileak

- **Erref**: SOR-067/014
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:34:31. **Bukatu**: 00:38:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Eskopetaren baskula zer den azaltzen du Julenek. Arizaga alde batetik, eta Migel Larrañaga bestetik ziren eskopeta osoa egin eta saltzen zuten tailerrak Soraluzen. Zortzi bat lagunek egiten zuten lan Iñurrietarren tailerrean. Sozioak alde egin eta 1944ean Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren tailerrean. Ezkondu eta gero Nikanorrek torlojugintza tailerra izan zuen.

13. Emaztearen familiarekin lanean

- **Erref**: SOR-067/015
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:38:08. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Lana errazteko Alemaniatik ekarri zituzten makinak. Nikanor ezkondu zenean, aitaginarrebaren lantegian hasi zen lanean. Koinatua eta biak torlojugintzan hasi ziren elkarrekin. Koinatuak Zamudion jarri zuen tailer bat, eta Nikanor geratu zen Soraluzekoarekin.

14. Leturiondotarren tailerra erosi zuen

- **Erref**: SOR-067/016
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:44:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea

Laburpena:
Alemaniara joan eta bi estanpatzaile makina erosi zituen. Ekoizten zuen guztia saltzen zuen, eta oso ondo joan zitzaion Nikanorri. Juanita Leturiondo zen Nikanorren emaztea, eta Juan Leturiondo haren familiako tailerraren izena. Tailerra erosi eta bere izena jarri zion Nikanorrek. 1983. urtean jubilatu zenean, tailerra itxi zuen.

15. Japoniarren konpetentzia

- **Erref**: SOR-067/017
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:44:24. **Bukatu**: 00:46:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea

Laburpena:
Japoniarrak torloju hobea eta merkeagoa itsasontzietan ekartzen hasi zirenean, hemengo torlojugintzak beherakada nabarmena jasan zuen. Hori izan zen tailerra ixtearen arrazoi nagusia. Berearekin batera Sacia, Argarate, Arizaga eta beste torlojugintza tailer batzuk ere itxi egin behar izan zuten. Denak porrot egin omen zuten.

16. Aitaren kartzela-pelegrinazioaren bukaera

- **Erref**: SOR-067/018
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:46:49. **Bukatu**: 00:47:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita Astorgako kartzelatik Gasteizkora ekarri, eta handik Bilboko eskolapioetan zegoenera eraman zuten. Hemendik Babcock & Wilcox lantegira behartuta joaten zen lanera. Gero Larrinagako kartzelan egon zen eta handik bidali zuten etxera.

17. Errepublikan Nikanor dantzari

- **Erref**: SOR-067/019
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:47:50. **Bukatu**: 00:51:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Errepublika etorri zenean, Nikanor haur dantzari talde bateko kide zen. Aurreskua dantzatzen ikasi zuen, eta Oñatira ere joan zen, garai hartan batere arrunta ez zen haur-aurreskua dantzatzera. Oñatin jendeak dirua bota zieten, zilarrezko pezetak barne; 1931. urtean izan zen hori.

18. Bergarako Euskal Jaietan dantzari

- **Erref**: SOR-067/020
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:51:17. **Bukatu**: 00:54:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Errepublika garaian, Bergaran ospatu zen Euskal Jai garrantzitsu batean, San Martingo plazan oholtza gainean egin zuten dantza. Bilbotar ospetsu batek eskatuta haur-aurreskua errepikatu zuten. Dantzan, oholtzatik txapela bota zion Nikanorrek publikoari, eta bere amaren eskuetan geratu zen txapel hori. 14 urtera arte jardun zuen dantzari.

19. Igandeetan inguruko herrietara

- **Erref**: SOR-067/021
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:58:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Errepublikak beste alaitasun eta elkartasun bat ekarri omen zuen Soraluzera. Erromerietara batez ere Eibarrera joaten ziren. Bergarara eta Elgoibarrera ere joaten ziren. Eibar erraustua geratu zen gerran, eta harik eta Ipuruako futbol-zelaia eraiki zuten arte, jendea ez zen bertan geratzen. Tartean, igandeetan Elgoibarren eibartar eta soraluzetar gehiago elkartzen ziren elgoibartarrak baino, trenez joanda.

20. Herrialdeko trenak

- **Erref**: SOR-067/022
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:58:18. **Bukatu**: 01:00:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Soraluzetarrak elgoibartarrei esaten omen zieten eurek Elgoibarrera joaten zirela, Eibarko neskak hara joaten zirelako. Zumarragan egon zenean trenez egiten zituen joan-etorriak, Antzuolatik bueltan. Mekolaldetik, Zumarragara “Ferrocarril Vascongado”rekin, edo Lizarraraino “Ferrocarril Vasco Navarro”rekin joateko trenbideak zeuden.

21. Soraluzetik Zumarragara trenez

- **Erref**: SOR-067/023
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:00:42. **Bukatu**: 01:02:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Ordubeteko bidaia zen Soraluzetik Zumarragara. Lau geltokietan geratzen zen iritsi aurretik. Antzuolako erripan langileak area botatzen zuten errailetan trenak labaindu ez zezan.

22. Eskopeta-kanoiak egiten

- **Erref**: SOR-068/001
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Makina automatikoak ekarri zituen arte, eskopeta-kanoiak zein artisau eran egiten ziren azaltzen du. Banan-banan eta eskuz zulatzen ziren, alde batetik lehenengo eta bestetik gero; erdiko koska nola konpontzen zuten, zuzentzailearen lana zein zen… Soraluzeko Astiazaranek asmatu zuen alde batetik besteraino zulatzeko makina, baina ez zen oso ona; gero makina alemana ekarri zuten, eta hark hobeto egiten zuen lana. Fresatzeko makina kopiatzailearen lanak azaltzen ditu.

23. Eskopeta osoa egiten

- **Erref**: SOR-068/002
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:03:06. **Bukatu**: 00:06:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Kanoi solteak hartu, eta lotzaileak labean soldatzen zituzten binaka. Kaxaginak kulatak egiten zituzten. Kanoia eta kulata lotzeko pieza, baskula, beste batek egingo zuen. Tailer bakoitza bere piezan espezializatuta zegoen, gero armaginak elkartuko zituenak. Baina baziren lantegi batzuk eskopetaren pieza guztiak egiten zituztenak, gero elkartu eta eskopeta bukatua ateratzen zutenak. Pistoi, gatillo, etab. armaginaren kontua izaten zen.

24. Errepublika proklamatu zutenean, herriko plazan harrika jardun zuten

- **Erref**: SOR-093/002
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:00:31. **Bukatu**: 00:01:41

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika proklamatu zenean, 6 urte zituen. Mutikoek harrika egin zioten Plaza Zaharreko plakari, "Alfonso XIII" izena zuen eta. Itxaropen handia piztu zuen aldaketak.

25. Maristetan ibili zen eskolan

- **Erref**: SOR-093/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:41. **Bukatu**: 00:03:01

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Maristetan ibili zen 6 urterekin hasita. Gogorrak ziren, baina asko ikasten zuten han. Gerra hasi zenean, eskolatik tunelera sartzen ziren, babesera. Erreketeak herrira sartutakoan, eskola itxi egin zen.

26. 11 urterekin hasi zen lanean

- **Erref**: SOR-093/004
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:03:01. **Bukatu**: 00:04:25

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita preso sartu zuten beste batzuekin batera. Etxean beharra zegoela eta, 11 urterekin lanean hasi zen hiru urtean. Ofizioa ikasten jardun zuen, soldadutzara joan arte.

27. Asmatutako jolasetan ibiltzen ziren umeak

- **Erref**: SOR-093/005
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:05:28

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Irratian, nobela entzuten zuten. Mezara joan eta gero, haiek asmatutako jolasetan jarduten zuten olgetan.

28. Ume izan arren, gerrak nagusitu egin zituen

- **Erref**: SOR-093/006
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:07:25

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Gerra irten zenean, nagusitu egin ziren umeak. Laneko soldata jasotakoan, 12 urterekin, nagusiari kexu joan zitzaion, etxekoak horrekin ezingo zituela mantendu esanez.

29. Abertzaleek gerran parte hartu edo ez eztabaidatu zuten.

- **Erref**: SOR-093/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:09:13

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Marokon altxamendua zegoela eta Bilbon tropak sartu zirela gogoratzen du. Anaia seminarista joana zen eta oporretan etxera zetorrela eta, arduratuta egon ziren. Abertzaleen artean gerran parte hartu edo ez eztabaidan jardun zuten.

30. Gerra hasitakoan, herrian geratzea erabaki zuten

- **Erref**: SOR-093/009
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:11:47

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra hasi zenean, batzordeak sartu ziren alkatearen lekuan. Jendea alde egiten hasi zen. Ama haurdun zegoen eta aitak geratzea erabaki zuen. Bizkaia hartu zutenean, herritarrak itzultzen hasi ziren, tartean bere lagun asko.

31. Aita salatu egin zuten

- **Erref**: SOR-093/011
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:12:03. **Bukatu**: 00:14:57

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Erreketeak sartu zirenean, kantuak eta oihuak entzun zituzten etxetik. Aita salatu egin zuten, zauritutako nazionalei barre egin ziela esanda. Gezurra zen, ordea, etxean baitzegoen, beldurragatik. Garai zailak zirela eta, ezinikusi asko sortzen zen.

32. Anaia gazteegia zelako, frontetik etxera bidali zuten

- **Erref**: SOR-093/012
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:14:57. **Bukatu**: 00:18:37

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Lagun bat frontera joan zen. Anaiak izena eman zuen gudari joateko, baina gazteegia zelako bueltan bidali zuten, beste batekin batera. Lana eman zieten herriko lantegi batean, Sacian. Ezinikusi asko sortzen ziren orduan.

33. Gerra sasoian ere jolasean jarduten zuten

- **Erref**: SOR-093/013
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:18:37. **Bukatu**: 00:19:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Gerra sasoian ere jolasean jarduten zuten.

34. Gerra ostean, hamazazpi lagun bizi ziren etxean

- **Erref**: SOR-093/014
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:23:09

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerratik itzultzen hasi zirenean, hamazazpi lagun egon ziren etxean bizitzen. Asko laguntzen zioten elkarri. Anaia bi frontean ibili ziren gudari: bata, Gernikan sartu eta gero; eta, bestea, Bilbon sartu eta gero.

35. Jateko gutxi eduki arren, dena gozoa iruditzen zitzaien

- **Erref**: SOR-093/015
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:27:11

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Jateko afana izaten zuten, gutxi zeukaten eta. Noizean behin, Bergarara joaten ziren bildotsa jatera. Garagarra erreta hartzen zuten, kafearen ordez. Morokila eta batata gustura jaten zituzten. 1946 ingurura arte, jateko gutxi zeukaten.

36. Razionamentuan mailak ipini zituzten

- **Erref**: SOR-093/016
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:27:11. **Bukatu**: 00:28:37

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Razionamentua hiru mailatakoa zen, irabazien araberakoa. Bigarren mailakoa ipini zieten beraiei. Ogia eskuetan apurtzen zitzaien.

37. Emakumeei ilea mozten zieten

- **Erref**: SOR-093/017
- **Iraupena**: 0:04:46. **Hasi**: 00:28:37. **Bukatu**: 00:33:23

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gorrotoak izan ziren, baina barkatu egin izan dituzte. Gauza gogorrak esaten zituzten. Gogoan du emakumeei ilea moztu zietenekoa. Gizonak izaten ziren hori egiten zutenak, eta mozkortuta zeudela mozten zieten ilea.

38. Carlos VII.aren koadroa lapurtu zieten

- **Erref**: SOR-093/018
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:33:23. **Bukatu**: 00:37:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Etxeetan lapurretan egiten zuten. Aitita karlista zen eta Carlos VIIren koadroa

zeukan. Seme-alabak abertzaleak zirenez, koadroa buelta emanda zegoen. Hura ere lapurtu zieten eta beraien elkartean ipini.

39. Gerra aurrean, antzerkiak izaten ziren elkarte politikoetan

- **Erref**: SOR-093/019
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:37:15. **Bukatu**: 00:39:38

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Gerra aurrean "solidarioak" batzokian antolatzen ziren. Alderditik apartekoa zen. Batzokian eta karlisten elkartean antzerkiak egiten ziren. Liberalean ere dantzaldiak eta egiten ziren.

40. Defentsarako batzordea sortu zuten gerra hasitakoan

- **Erref**: SOR-093/020
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:39:38. **Bukatu**: 00:43:53

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:
Defentsarako batzordea sortu zuten gerra hasi zenean, alkatea kenduta. Alondegian egiten zituzten saioak, kontzejupean. Alondegira zahagiak ekartzen zituzten eta tabernariek han erosten zuten ardoa. Jabetzak kentzeko etxeetara joaten ziren.

41. Dotrina euskaraz ikasi zuen

- **Erref**: SOR-093/022
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:46:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskola garaian dotrina euskaraz jasotzen zuen. Baserritar askok erderaz egiten zuten.

42. Gerra aurretik, ume guztiek euskaraz egiten zuten

- **Erref**: SOR-093/023
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:49:08

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gerra aurretik, ume guztiek euskaraz egiten zuten, baita guraso erdaldunak

zituztenek ere. Neskek erdaraz egiten zuten, eta mutilek neskekin ere bai. Konfiantza hartutakoan neskekin, euskaraz. Beraien seme-alabek ere asko egiten zuten erdaraz.

43. Lehenengo soldata gogor helduta eraman zuen etxera

- **Erref**: SOR-093/024
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:49:08. **Bukatu**: 00:52:33

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Gerra aurretxoan hasi ziren herriko lantegiak indartzen. Soldata ez zen hain txarra. Lehenengo soldata gogor helduta eraman zuen etxera. Hiru errelebotan ibiltzen zen, igandetan ere lanean. Goizeko ordu bietan kafesnea zopekin hartzen zuten.

44. Emakumeak gerra garaian hasi ziren lanean lantegietan

- **Erref**: SOR-093/025
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:52:33. **Bukatu**: 00:53:34

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Emakumeek oihalgintzan egiten zuten lan. Gerra garaian hasi ziren lanean. Diru beharra zegoen etxean.

45. Gerra garaian elizan ez zen barkaziorik esaten

- **Erref**: SOR-093/026
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:53:34. **Bukatu**: 00:56:32

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Elizako kontuetan gerra garaian ez zen barkaziorik eta halakorik egoten. Abade bat deserriratu ere egin zuten.

46. Elizara ez joateko, nortasun handia behar zen

- **Erref**: SOR-093/027
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:56:32. **Bukatu**: 00:57:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Egunerokotasunean, elizak indar handia zeukan. Mezara ez joateko nortasun handia behar zen.

47. Pelaioak eta Margaritak

- **Erref**: SOR-093/028
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:57:18. **Bukatu**: 01:00:00

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Pelaioak eta Margaritak. Erreketeek umeak instruitu egiten zituzten, soldadu izateko etorkizunean. Bere lagunak Bizkaitik etorri aurretik utzi zion joateari, ama bera ere lotsatu egiten zen eta.

48. Jaietan ardoa dohainik ematen zuten

- **Erref**: SOR-094/001
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra bukatu zen urtean, enpresa guztiek langileen bazkaria egiteko agindua jaso zuten. 14 urte zituen eta irrikitan zegoen bazkarirako. Mozkortu egin ziren denak. Berriro ez zuten bazkaririk egin. Jaietan ardoa dohainik ematen zuten.

49. Dantzazaleak ziren gaztetan

- **Erref**: SOR-094/002
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:06

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Dantzarako amorratuak ziren gaztetxotan.

50. Urtero komedianteak etortzen ziren

- **Erref**: SOR-094/003
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:07:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Oporrik ez zuten izaten. Aratusteak gerra aurrean egiten ziren, koko jantzita, baina ez zen ezer handirik izaten. Lehenagokoek kontatzen zuten ospatzen zela. Komedianteak etortzen ziren urtero plazara.

51. Ardoa edanda animatzen ziren dantzara

- **Erref**: SOR-094/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Herriko neskekin lotsatu egiten ziren. Ardo txikitoa hartu eta animatzen ziren azkenengo orduan dantzaren bat egitera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-05

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com